

# Zer diote gazteek (gutaz)?

*Gazteak mintzo: diskurtsoak eta  
etorkizunerako proiektzioak*



**SOZIOLINGUISTIKA  
KLUSTERRA**  
Euskara biziberritzeko  
ikergunea

# Datuak bi ikerketatik

## Lasarte-Oriako gazteak eta euskara

4 talde eztabaida:

- 13-14 urte bitartekoekin
- 15-18 urte bitartekoekin
- 19-24 urte bitartekoekin bi




## Donostiako Lehen Hezkuntzako ikasleak

(Garbiñe Bereziartuarekin batera)

- 10 talde eztabaida





## Bide orria

- Gaitasunaz bi hitz
- Hizkuntza joeren naturalizazioaz eta bere arriskuez lau
- Dialekto vs. Batua auziaz, ideia bat, aukera gisa
- Beste zenbait hari-mutur...

**“Aditzak eta, pentsatu egin behar”**

- Marta (18 urte): Agian bakarrik geratzen zera txikitan ikasten duzunarekin. Niri adibidez, kostatzen zait euskera, ez dut praktikatzen eta, pues *sinmas*, ez dut asko erabiltzen. Horregatik, agian bakarrik dut ikasi dudana txikia nintzenean. Eta hori gertatzen zaio ia nere gela guztiari.
- Daniel (19 urte): Ni ere horrela sentitzen nintzen. Ikusten nituen *pues* euskeraz zekitenei, euskeraz hitz egiten ba oso azkar eta oso... [...] Konfiantza handiarekin, eta nik nekien ezin nuela hori egin.
- Irene (17 urte): Zuk ez badezu klasetikan kanpo euskeraz hitz egiten edo zure kabuz, nahi dezulako euskeraz hitz egiten, daukazu nibela, bueno, bai igual komunikatu zaitezke, baino bueno, justito.

Elene (17 urte): Eskas.

**Ikaslea 1N (M 2-1):** A bai [barre batzuk]. *A ver es que* gauza da eee klasean euskeraz egiten nuen baino, baino *o sea* nire bizitzan, nire familian, beti gaztelaniaz, orduan ba oso zaila egiten zait unibertsitatean dena euskaraz egitea ta gainera batzuetan ba ez daukat problemarik e, nik saiatzen naiz beraiei euskeraz eee, baino *ya es que llega un punto*, esaten diot ez, barkatu baino *es que* saiatzen naiz, saiatzen naiz eta nola ez dakat, *o sea* uste det problema da espresatzea *o sea* nire pentsamendua dena gazteleraz dago ta dena, nola esan behar dut euskaraz, ba eee txoke *en plan cortocircuito*. Ta ezin dut. Horregatik. Bai eta hori, ez dakit, *ya está*.

Euskara ez erabiltzeko arrazoiei buruz galdetuta, gazteek, helduon antzera, ez dute diagnostiko argirik, euren gertuko errealitateaz ari badira ere. Aipatzen diren argudioen artean, bi nagusi direla esan daiteke. Batetik, gazte batzuen **euskararen ezagutza mailari** erreparatzen zaio. [...] Bestetik, gazteek euskararen erabilera eta familia lotzeko joera dute. Euren iritziz, euskaraz egiteko ohitura dutenak familia euskaldunetakoak edota euskaraz hitz egiten duten familietakoak dira». (Hernández & Altuna, 2020:450)

**Hizkuntza joeren naturalizazioa**



Elk.: Ordun, lagunek ere euskeraz hitz egiten duten guztik dia familia euskaldunetakok?

Irene (17 urte): Gehiengoak.

Elene (17 urte): Gehiengoak.

Daniel (19 urte): Bai.

Aroa (17 urte): Nik ustet baietz, ia denak.

Elene (17 urte): Nik adibidez, etxean betidanik euskeraz eta kuadrillan ta hola dena euskeraz, gehienbat.

Irene (17 urte): O sea, azkenen ez dakatenak familia euskalduna eta euskeraz hitz egiten dutenak lagunekin, da beraiek benetan nahi dutelako eta, ez dakit, jendeak daukana txip aldaketa hori de "ostras nik euskeraz egin nahi det nahiz eta nere etxean euskeraz ez in." Eta saiatzen dana benetan euskera hori gehio erabiltzen, baina bestela...

**Elk.:** Ta ordun ze pasatzen da *o sea* jartzezu pertsona bat euskeraz hobeto moldatzen dana ta beste pertsona bat gaztelaniaz hobeto moldatzen dana ta in behar dute zerbait o hitzein behar dute edo ai dia pote bat hartzen elkarrekin, nola erabakitzen da ze hizkuntzatan hitzeitezuen?

**Ikaslea 1N (M2-3):** Bitan.

**Ikaslea 2N (M2-3):** Bai.

**Ikaslea 1M (M2-3):** Edo gehiengoaren arabera.

**Ikaslea 2N (M2-3):** Nik uste bakoitzak bere ohiturak mantentzeitula.

**Ikaslea 4M (M2-3):** Nik uste ez dala erabakitzen.

**Ikaslea 1N (M2-3):** Hori *o sea*...

**Ikaslea 1M (M2-3):** Naturalki ateatzen dena.

**Ikaslea 4M (M2-3):** Nik uste pertsonaka dijuala.

**Ikaslea 2M (M2-3):** Bai, pertsonaka.

**Ikaslea 3M (M2-3):** Ta kontestuaren arabera, *o sea* batzutan, hitzeitezu euskeraz ta bestetan gaztelaniaz, *depende* ateatzen zaizuna.

“Naturalismo hori ez dator bat **hiztunen agentziaren** aitortzearekin,  
ez eta **giza ekintzaz eraikia** den hizkuntzaren irudi historizatuarekin  
ere”

(Woolard, 2016:30-31).

Antropologian sarritan salatu den moduan, kultura naturalizatzen denean, **dikotomiak eta parekotasunik eza ezkutuan geratzeko arriskua dago.** Horren arabera, naturala dena, naturalki “ateratzen” zaiguna, aldaezina litzateke, berez da horrela; ez du bestelako azalpenik edo argudiorik behar, eta inertzia indartzen du, irtenbide kolektiboak eta orokorrak alboratuta.

(Altuna & Hernández, 2021:43)

**Ikaslea 2N (M 2-1):** *Depende pertsona. O sea euskaraz hasten bada pues euskaraz si no, vamos, gazteleraz.*

**Dialektoa, naturaltasunerako baldintza**

Benetako euskalduna, euskara etxean jaso eta ostean kalean modu **natural eta trebe** batean erabiltzen duena da. Hori betetzen ez duten gazteak konplexuz beteta agertzen dira.

(Hernández & Santamaría, 2021:369)



**Ikaslea 4M (G 2-3):** *Es que* nere kasuan hori gertatzen da, nik ba Portugaleten ikasi nun ta hango euskera ba euskera batua zen, ta azkenean ez zenuen denbora osoan egiten euskera klasean, gehienetan euskera klaseetan, *incluso* erderaz iten zenun, ta azkenean *pues* honea etortzean ba gainera eee zaila egiten zait, euskalki desberdinak egoten direnez ta nik ez nago *acostumbrado* euskeraz hitz egitera eta azkenean ba *bueno* pisuan daukat bi euskaraz hitz egiten dutenak ta *bueno* ondo baina hemen etortzen naizenean ba nahiago dut erderaz dauden pertsonekin hitz egitea.

**Irakaslea (G 2-3):** Baino horren arrazoia zein da, eee... Ulermen kontuak?

**Ikaslea 4M (G 2-3):** Ez azkenean ba *no sé* lotsa gehiago ematen ditelako euskeraz hitz egitea, badakit ez dauka, ez dudalako euskera ona ta azkenean ba ez zait gustatzen hola euskeraz hitz egitea ze azkenean da *como que me pongo en un aprieto*.

**Dialektoa, erregistro bat? *Estilo* bat?**

**Ikaslea 2N (M 2-1):** *O sea nik sentitzen det que es como muy académico o sea eskolan horrela irakatsi dute eee haien gauzekin eta adibidez nik sentitzen det euskalkiz egiten dutenak ba da como más sentimiento ta ordun da como joe bizitzen dute sabes eta eee batuan iten dut, dugunok porque nik eee batuan iten det o sea da como más ikasi duguna ez sentitzen dugulako que gertatu daiteke...*

**Ikaslea 2N (M 2-1):** *No no, o sea ,da como, más vibraciones.*

**Ikaslea 3N (G 2-1):** Neretako euskalkixa dakan jendeak daka *puntx* gehiau nere ustez. *O sea* neri gehio atraitzen dezta pertsona batek eee baldin badaka euskalkixa o euskeraz ondo itxen dabengan berba gazteleraz berba itxen badezta baino.

[...]

**Ikaslea 3N (G 2-1):** *Te hace más tilín.*

**Ikaslea 1M (M 1-1):** Igual beste pertsona eee batuaz ari bada edo, ez, ez dut hori pentsatzen baina, ari bada, adibidez ba berarekin [euskalkidun kide batekin] hitz egiten ari banaiz ba, hori pentsatzen dut, *qué cutre* edo...

[...]

**Ikaslea 1N (M 1-1):** Ez daka *igual* pertsonalitate handirik batuak, ez dakit, *o sea* sinplea, basikoa denentzat... [Euskalkidun kideak seinalatuz] beraien ezaugarri bat izan daiteke euskera, ta berena da.

**Ez da gai bat**

**Elk.:** Ta honi buruz berbalizatzen da edo inkomodua da edo tabu bat da edo ez da tema bat?

**Ikaslea 1M (M 2-1):** Nik uste ez da tema bat.

**Ikaslea 6N (M 2-1):** Ez da tema bat.

**Ikaslea 1M (M 2-1):** Hemen unibertsitatean...

**Ikaslea 4N (M 2-1):** Unibertsitatean ez, *igual* lagunakin ba, bai ahal dezu hitz egin horretaz baina hamen ez.

**Elk.:** honi buruz hitz egin dezue zuen artian, *o sea* tema bat da oain hitz egin ai gean hau?

**Ikaslea 1N (M 2-1):** Ez.

**Ikaslea 6N (M 2-1):** Ez.


**Elk. (M2-2):** Talde eztabaida hau egin aurretik hitz egin dezue honen inguruan taldetxotan zuen inguruan?

**Ikaslea 5N (M2-2):** Ez.

**Ikaslea 3M (M2-2):** Ezteu planteau.



**Gaitasuna,  
praktika,  
ideologiak...**





## Beste zenbait hari-mutur

- Babesguneen ideia (Hernández eta Altuna (2022)
- Euskararen biziberritze prozesuan agentziarik eza (Hernández & Santamaría, 2021). Nola eman/hartu/harrarazi?
- Kideen arteko harremanen garrantzian fokoa: gazte kulturak, gazte identitateak. Zer dakigu gazte kulturez?

# Erreferentziak

- Altuna, Olatz & Hernández, Jone Miren (2021). Gazteak euskararen eszenatokian: erabileraren auzia. *Bat: Soziolinguistika aldizkaria*, (120), 29-45.
- Hernández, Jone Miren & Altuna, Jaime (2017). Gazteak euskararen jolastokian, in *Euskararen biziberritzea: marko, diskurtso eta praktika berriak birpentsatzen*. Udako Euskal Unibertsitatea (UEU): 53-70.
- Hernández, Jone Miren & Altuna, Jaime (2020). Gazteak eta euskararen erabilera: egin gabeko galderak. *Euskera: Euskaltzaindiaren lan eta agiriak*, 2(65), 445-479.
- Hernández, Jone Miren & Santamaría, Ainara (2021). Do It Yourselfetik planifikaziora. Euskal hiztun gazteak eta berreskurapenaren auziak. *Fontes Linguae Vasconum: Studia et documenta*, 53(132), 349-374.
- Soziolinguistika Klusterra (2020). *Gazteak euskararen eszenatokian: erabileraren auzia*. Soziolinguistika Klusterra.
- Woolard, Kanthryn (2016). *Singular and plural: Ideologies of linguistic authority in 21st century Catalonia*. Oxford University Press.